

Digestioa

Jaten ditugun elikagaiak ahotik sartzen dira gorputzean.

Hortzek elikagaiak mastekatzen dituzte. Elikagaiak apurka transformatzen dira entzima batzuen eraginez. Entzima horietarik bat amilasa dugu. Amilasak tu-guruinek libratzen dituzten digestio-urinetan dira.

Tuak elikagaiak bustitzen ditu eta entzimek azukre eta almidoi kateak zatitzen dituzte.

Elikagaiak elikadura bolo bilakatzen dira. Mihiaren mugimenduek hestegorrira bultzatzen ditu. Ondotik, hestegorriaren uzkurdurak direla medio, urdailera heltzen dira.

Digestioak urdailean segitzen du. Hartan, elikagaiak oren baten eta lau orenen artean egoten dira.

Elikagaiak nahastekatuak dira eta emeki-emeki ahi bilakatzen dira.

Digestio-urinen entzimek elikagai mota guzietako molekulak hein batean puskatzen dituzte.

Heste meharra zazpi edo zortzi metro luzeko zilindroa da. Hartan dira nutrienteak sortzen (glukosa, gantz-azidoak eta aminoazidoak), organismoak zuzenean asimila ditzakeenak.

Heste meharrera heltzean, nutrienteak odolera iragaten dira.

Xurgapena heste-biloetan egiten da. Heste-biloak, hestearen barne pareta estaltzen dituzten plegu mikroskopikoak dira. Asko baitira –hamar bat milioi–, hesteak xurgapen eremu handia eskaintzen du: guti gorabehera berrehun eta berrogeita hamar metro karratu.

Digerituak ez diren elikagaiak heste lodira iragaten dira eta organismoak uzkitik kanporatzen ditu. Elikagaien digestiotik datozen nutrienteek zelulei energia ematen diete eta organoak funtzionarazten.

Elikagaiak energia iturri dira. Energia hori erreakzio kimikoen ondorioz libratua da eta organismoak energia mekaniko eta termiko bihurtzen du.